

ELORRIO

IBILBIDE HERALDIKOA



RECORRIDO HERÁLDICO



Elorrioko udala



bbk=

18





izkaiko udalerrri guztietatik, Elorrio da armari heraldiko gehien dituen; 69 hain zuzen ere. Armari horietatik, 38 hirigunean daude eta 31, landa-auzoetan.

Oinordetzako armari heraldikoek Erdi Aroko Europar dute jatorria; XII. mendean hain zuzen ere. Hasieran izaera pertsonala eta hertsiki militarra bazuten ere, mende horren amaiera aldera seme-alabei pasatzeko ohitura hasi zen eta, ondorioz, izaera familiarra hartu zuten.

Behe Erdi Aroan hain zuzen ere, lehen familia armari heraldikoak sortu ziren Bizkaian. XIII. mendean, otsoa zen Haro leinuaren armaria, baina denborarekin otsoa Bizkaiko Jaurerriaren armariaren parte izatera pasa zen.



Haro leinuaren harmarria (Bizkaiko nagusiak)
Escudo de la casa de Haro (Señores de Bizkaia)



e todos los municipios vizcaínos, Elorrio es el que cuenta con un mayor número de escudos heráldicos, concretamente 69. De éstos, 38 se encuentran en el núcleo urbano y 31 en sus barrios rurales.

Los escudos heráldicos con carácter hereditario tuvieron su origen en la Europa de la Edad Media, concretamente en el siglo XII. Aunque en sus inicios tuvieron un carácter personal y estrictamente militar, a finales de ese siglo se inició la costumbre de transferirlos a los hijos con lo que pasó a tener un carácter familiar.

Fue precisamente en la Baja Edad Media cuando surgieron también los primeros escudos heráldicos familiares en Bizkaia. En el siglo XIII, el lobo ya estaba definido como el emblema familiar de los Haro, símbolo que con el tiempo pasó a formar parte del escudo del Señorío de Bizkaia.



XIII. eta XIV. mendeetatik aurrera armari heraldikoa izaera militarra-familiarra izateari utzi zion eta lanbide-korporazioak bezalako kolektiboen eta udalerriak bezalako lurralde-entitateen irudia izaten hasi zen. XIV. mendearen amaieran, armaria eraikinei eta artelanei gehitzen hasi zitzairen euren jabeen prestigioaren seinale gisa.

Armari heraldikoek euren jabeen nortasuna, iragana eta gizarte-mailaren benetako informazio-elementuak dira. Jabeek iragan hori erakusteko zuten gogoia eta harrotasuna zirela-eta, eraikinen lekurik ikusgaietan eta adierazgarrietan jarri ziren, normalean fatxada nagusiaren erdian edo izkina batean.



A partir de los siglos XIII y XIV el escudo heráldico dejó de poseer un carácter militar-familiar para representar también a colectivos como corporaciones de oficios o entidades territoriales como los municipios. Desde finales del siglo XIV el escudo de armas empezó a incorporarse a los edificios y obras artísticas como una señal indicadora del prestigio de sus propietarios.

Los escudos heráldicos son verdaderos elementos informativos sobre la identidad, el pasado y la posición social de sus dueños. El orgullo y la voluntad que estos sentían por mostrar ese pasado hizo que los escudos fuesen colocados en las zonas más visibles y significativas de los edificios, normalmente en el centro de la fachada principal o en una esquina.



HERALDIKA ELORRION



lorioko armari gehienak udalerriko landa-guneetan kokatutako eraikinetan ere agertzen diren abizeni dagozkie, ingurune horretan baitago familiaren jatorrizko oinetxea. Oinetxearen datua garrantzitsua da, izan ere, garai hartan, etxearen jabeek euren arbasoen jatorri bizkaitarra eta odolaren “garbitasuna” (mairu, judu edota kristautuekiko kontakturik gabea) egiaztatzeko aukera baitzuten horri esker.

Egun kutsu arrazista badu ere, baldintza hori betez gero, herri-tarrak kapare kondizio sozial zabalduenaren barruan sartzen ziren, 1526ko Bizkaiko Foru Berriaren arabera. Kapare izateak salbuespen fiskalak izatea ahalbidetzen zuen, baita armarrria izateko aukera ere, guzti-guztiek ez zeukaten arren.



*Mendraka auzoko Ulaortua baserriaren harmarria (Elorrio).
Escudo heráldico del caserío Ulaortua en el barrio de Mendraka (Elorrio).*

LA HERÁLDICA EN ELORRIO



a mayoría de los escudos de Elorrio corresponden a apellidos que también figuran en escudos de edificios situados en las zonas rurales del municipio, donde se conserva la casa solar originaria de la familia. Este dato de la casa solar es importante pues, en aquella época significaba que sus propietarios podían acreditar el origen vizcaíno de sus antepasados y la “limpieza” de su sangre (ajena a contacto alguno con moros, judíos o conversos).

Aunque hoy conlleve un cierto significado racista, cumpliendo ese requisito el Fuero Nuevo de Vizcaya de 1526 los incluía en la casi generalizada condición social de hidalgos. El hecho de ser hidalgo permitía tener exenciones fiscales y conllevaba además el poder poseer un escudo de armas aunque no todos los hidalgos lo tenían.



Euren kaparetasuna gorabehera, landa-guneetako oinetxe horietako pertsona askok emigratu behar izan zuten, baliabide ekonomikorik ez zeukatelako edo bigarren oinordekoa izateagatik. Horietako askok etxetik urrun fortuna handiak egiteko zoriona izan zuten eta, sorterrira erretiroa hartzeko itzulita, euren maila sozial altuak jauretxe handiak eraikitzeko aukera eman zien.


Estilo eta kronologiaren arabera, hiru multzotan sailka daitezke Elorrioko eraikinetan dauden 69 armari edo blasoiak: armari gotikoak edo gotiko berantiarrak, errenazimentuko armariak eta armari barrokoak.



*Urkizuaran auzoan, Urkizu San Bizentekoa baserria.
Caserío Urkizu San Bizentekoa en el barrio de Urkizuaran.*

A pesar de su hidalguía, numerosas personas pertenecientes a esas casas solares situadas en las zonas rurales se vieron forzadas a emigrar, bien por carecer de recursos económicos o por ser hijos segundones. Muchos de ellos tuvieron la suerte de hacer grandes fortunas lejos de casa, y al retornar para jubilarse a su villa natal su elevado estatus social les permitió levantar grandes mansiones palaciegas.

Ateniéndonos a sus estilos y cronología, los 69 escudos heráldicos o blasones existentes en los edificios de Elorrio pueden encuadrarse en tres grupos: escudos góticos o tardogóticos, escudos renacentistas y escudos barrocos.





Armari gotiko hauek dituen eraikina, Goiko Errota izenez ezaguna, Otsa familiarena izan zen, eta ertzetan bi merkatarri marka edo ikur ditu. Eraikinaren eskuinaldekoan, bi lehoi jaioberri agertzen dira ikurra grabatuta duen armariari eusten. Ezkerraldekoan, berriz, irudi kimeriko bat dago, eskuetan ikur bera duena, baina murriztuta.

El edificio donde se encuentran estos escudos góticos, conocido como Goiko Errota, perteneció a la familia Otsa y luce en sus esquinas dos marcas o signos de mercader. El de la derecha del edificio muestra dos leones nacientes que sostienen el escudo donde está grabado el signo. El de la izquierda muestra una figura quimérica que sostiene entre sus manos el mismo signo reducido.

Estilo gotiko edo gotiko berantiarreko armariak XVI. mendera arte iraun zuten eta oso soilak dira: oro har, behe-erliebean landuta daude eta pabiloi bakarra dute. Aro horren adibide gutxi daude Elorrioko hirigunearen barrutian eta horien edukia ez da benetan abizenei dagokiena: bata Kanpokaleko atariko da (1490ean bertua), eta Errege-erregina Katolikoan lurralde-armari bat da. Beste biak Goiko-errotakoak dira, XVI. mendeko lehen urteetakoak, eta ez dute abizenen irudirik, baizik eta merkatarri baten marka komertzialak.

Errenazimenduko armariak ere soilak dira, baina ohikoagoa da irtengune gehiago edukitzea eta egitura edo zatiketa apainduagoa izatea, hainbat pabiloi edo laurden sartuta. Gainera, ingerada edo forma landuagoa izan ohi dute (Esteibar, ortura ematen duen aurrealdekoa, Esteibar Arauna jauregian, edota Urkizu dorreko alboko aurrealdekoa, Berrio-Otxoa kalean kokatutakoa).

Los escudos de estilo gótico o tardogótico perduran hasta bien avanzado el siglo XVI y son muy sencillos: comúnmente están labrados en bajorrelieve y constan de un pabellón único. Existen pocos ejemplos de este período en el recinto del casco urbano de Elorrio y su contenido realmente no corresponde a apellidos: uno es el del portal de Kanpokale (renovado en 1490), que es un escudo territorial de los Reyes Católicos. Los otros dos son los escudos de Goiko-errotta, ya de los primeros años del siglo XVI, que no muestran figuras de un apellido sino marcas comerciales de un mercader.

Los escudos renacentistas siguen siendo austeros, aunque es más habitual que tengan algo más de resalte y que su estructura o partición empiece a complicarse, incorporando diversos pabellones o cuarteles. Además, suelen presentar un contorno o forma más elaborada, como el de Esteibar, situado en la fachada del palacio Esteibar Arauna que da a la huerta, o el situado en la fachada lateral de la torre de Urkizu, sita en la calle Berrio-Otxoa.



Amarria Esteibartarren desagertutako jauregiarena zen; bere gainean, gaur egungoa eraiki zuten.
Escudo de Esteibar perteneciente al palacio ya desaparecido sobre el que se levantó el actual.

Armarri barrokoak XVII. mendetik aurrera garatu ziren, Elorrioko heraldikaren urrezko aroan. Hiribilduko jauregietako ugariak eta adierazgarrienak dira eta eraikin handios eta monumentaletan daude kokatuta, jabeen arrakastaren adierazle.

Forma anitz dituzte, klasikoenetik, goiko erpinak angelu zuzenean eta behekoak borobilduak dituztenak (Arriola) edo konopio txiki bat erremate gisa dutenak (Lekerika-Otsa), ingerada erabat kurbatuak itxitakoetaraino (Arabio edo Esteibar-Arana jauregiak), oinarrian (punta) goialdean (burua) baino estuagoak direnak, forma obalatukoak ahaztu gabe (Lariz edo Urkizu-Tola).

Markoztatze-elementuen aniztasun eta aberastasuna dute ezaugarri nagusizat, itxura monumentala ematen dieten erliebe handiz landuta: lumazko motosdun kasketak, lanbrekinak (alboetatik jausten diren akanto-zurtoin kizkurrak), oihal esekiak, goiburuak, maskaroiak edota lehoiak, umeak, aingeruak, itsaslaminak edo uhan dreak izan daitezkeen irudiak.

Laurden bakarrekoak izan daitezke. Halakoetan, jatorrizko oinetxeko hasierako armariaren erreplika izan daitezke (Arespakotxaga) edo zatiketak ager daitezke, laurden ezberdinekin (Arespakotxaga-Andueza edo Arespakotxaga-Azkarraga), familia-adar ezberdinekin ahaidetu diren leinu ezberdinen abizenak jasotzeko.



Iturri jauregia.



Palacio de Iturri.


Los **escudos barrocos** se desarrollan a partir del siglo XVII, época dorada de la heráldica en Elorrio. Son los más abundantes y representativos de los palacios de la villa y se ubican en edificios suntuosos y monumentales, lo que proclama la prosperidad de sus dueños.

Pueden presentar formas muy variadas, desde la más clásica, con cantones superiores en ángulo recto e inferiores curvos (Arriola) o rematados en un diminuto conopio (Lekerika-Otsa), hasta la definida por un contorno enteramente curvo (palacios Arabio o Esteibar-Arauna), más estrecho en la base (punta) que en la parte superior (jefe), pasando por los de forma ovalada (Lariz o Urkizu-Tola).

Se distinguen sobre todo por la riqueza y variedad de los elementos de enmarque, trabajados con gran relieve que les conceden un aspecto monumental: yelmos con penachos de plumas, lambrequines (tallos rizados de acanto que caen por los lados), telas colgantes, lemas, mascarones o figuras tenantes que pueden ser leones, niños, ángeles, sirenas o tritones.

Pueden constar de un cuartel único, en cuyo caso pueden ser réplica del escudo primitivo del solar originario (Arespakotxaga) o mostrar particiones con varios cuarteles (Arespakotxaga-Andueza o Arespakotxaga-Azkarraga) para acoger los apellidos de los distintos linajes que han emparentado en las diferentes ramas familiares.

URKIZU



Leinuaren jatorria: Araba, (Iurre) Arratia, Elorrio. Armarría dorre zaharraren gainean eraikitako jau-regian dago; jatorrizko murrueen zati bat eraikinaren atzeko fatxadan ikus daiteke, alegia, erre kara begira dagoen aldean.

Armarría: Erdibitua: 1.a, banda draganteen ahoan. 2.a, era berean ebakia: goian, beso armatu bat ezpata behera begira duela. Azpian, zuhaitz bat dago, eta haren aurrean basurde bat.

Apainketa: Xumea, ez dauka gandorrik.

Procedencia del linaje: Araba, (Iurre) Arratia, Elorrio.

Este escudo se ubica en el palacio levantado sobre la antigua torre; parte de sus muros primitivos pueden apreciarse en la fachada trasera del edificio, la que da al río.

Escudo: Partido: 1º, banda en boca de dragantes. 2º, a su vez cortado: arriba brazo armado con espada punta abajo. Debajo árbol terrasado con jabalí pasante al pie del tronco.

Decoración: sencilla, carece de cimera.

URKIZU-ESTEIBAR

Leinuaren jatorria: Elorrio.

Armarría: Erdibitua: 1.a, banda draganteen ahoan (Urkizu); 2.a, era berean laukotua: a) eta d), lislöre erako gurutzea; c) eta d), bi otso-buru bata bestearen gainean (Esteibar).

Apainketa: Kaskoa eta lumak, eta goiko erremate oso xumea, kanpaitxo banarekin albo bietan.

Procedencia del linaje: Elorrio.

Escudo: Partido: 1º, banda en boca de dragantes (Urkizu). 2º, a su vez cuartelado: a) y d): cruz flordelisada; b) y c), dos cabezas de lobo una sobre otra (Esteibar).

Decoración: casco y plumaje, y un remate superior muy sencillo, con una campanilla a cada lado.



AYUNTAMIENTO

Elorrioko udaletxearen aurrealdeak bi armari ditu. Ikuslearen ezkerraldekoa Isabel I.a Katolikoari, Bizkaiko Andreari, dagokio. Eskuinaldekoa, berriz, Bizkaia-Elorriokoa da.

ISABEL I.A KATOLIKOAREN, BIZKAIKO ANDREAREN, ARMARRIA.

Armarría: Laukotua: 1.a eta 4.a, hiru dorreko gaztelua (Gaztelako Erresuma). 2.a eta 3.a, lehoi koroatu bat (Leongo Erresuma).

Apainketa: Koroatik, armarría inguratuz, urrezko "Toison" deritzon idunekoa dago zintzilik, dagokion ahari-larruarekin batera.



La fachada principal del ayuntamiento de Elorrio ostenta dos escudos. El situado a la izquierda del espectador corresponde al de Isabel I, la Católica, Señora de Bizkaia. El situado a la derecha corresponde al de Bizkaia-Elorrio.

ESCUDO DE ISABEL I, LA CATÓLICA, SEÑORA DE BIZKAIA.

Escudo: Cuartelado: 1º y 4º, un castillo con tres torres (Reino de Castilla). 2º y 3º, un león andante y coronado (Reino de León).

Decoración: corona de la que pende, rodeando el escudo, el toisón de oro, con su vellocino.



BIZKAIA - ELORRIOKO ARMARRIA

Armarría: Laukotua: 1.a eta 4.a, sustraietatik ateratako haritz bat eta bi otso enbor aurretik igarotzen (Bizkaiko jaurerria). 2.a eta 3.a, dorre eskematizatu bat eta elorria haren aurrealdean (Elorrioko hiribildua).

Apainketa: Larruzko zerrenda-zatiz inguratutako armarríari lehoi batek eusten dio atzaparrekin, eta haren buruak kasko heraldikoa ordezkatzeko; lanbrekin apainduta dago.

ESCUDO DE BIZKAIA - ELORRIO

Escudo: Cuartelado: 1º y 4º, un roble raigado y dos lobos pasantes delante del tronco (Señorío de Bizkaia). 2º y 3º, una torre esquematizada y un espino en su frontis (Villa de Elorrio).

Decoración: la cartela está sostenida con sus garras por un león cuya cabeza sustituye al morrión heráldico, y está adornado con lambrequines.

ARABIO



Leinuaren jatorria: Arabio auzoa, Elorrio.

Armaria: Laukotua: 1.a, sustraietatik ateratako adaburu handiko pinu bat, eta lehoi bat enbor aurean; zortzi puntako hamahiru izarreko azpa (Arabio). 2.a, almenadun dorrea eta oinarrian bi otso ibiltari, aurrez aurre azpa horzdun bat dutela (Ortiz de Etxebarría). 3.a, zuhaitz bat, aurretik basurde bat igarotzen ari zaiola, eta zortzi izareko azpa (Mendia). 4.a, almenarik gabeko dorrea (Ugalde).

Apainketa: Lehoi tenanteak, zutabe eta lanbrekinen gainean hatz-puntetan jarriak: kaskoa, aingeru-burua hegoak zabalik; maskarota oinarrian eta batasun-lorria zutabeen artean. Armariaren atzealdean, Alcantararen Gurutzea ageri da.

Procedencia del linaje: barrio de Arabio, Elorrio.

Escudo: Cuartelado: 1º, un pino copudo y raigado, con león pasante al tronco; bordura con trece estrellas de ocho rayos (Arabio). 2º, torre con almenas y al pie dos lobos andantes y afrontados con bordura dentellada (Ortiz de Etxebarría). 3º, árbol con jabalí pasante, y bordura con ocho estrellas (Mendia). 4º, torre sin almenas (Ugalde).

Decoración: leones tenantes, empinados sobre columnas y lambrequines: casco, cabeza de ángel con alas desplegadas; mascarón al pie y lazo de unión entre las columnas. Lleva acolada la Cruz de Alcántara.

ERREGE-ERREGINA KATOLIKOAK REYES CATÓLICOS

Hiribilduko antzinako atarietako baten sarrera-arkuaren gainean dago, "Eguerdikoa" renean, hain zuzen. Ataria 1490ean eraiki zen aurreko bat ordezkatzeko. Armari inperiala Errege-Erregina Katolikoek izandako lehenengoa da.

Armaria: Laukotua: 1.a eta 4.a, Gaztela eta Leongo armekin. 2.a eta 3.a, Aragoi eta Siziliako armekin. Oraindik ez da ageri Granadako, 1492an erantsi baitzen.

Apainketa: Koroa eta arranoa, hegoak zabalik.



Está situado sobre el arco de entrada de uno de los antiguos portales de la villa, el del "Mediodía". Este portal fue construido en 1490 en sustitución de otro anterior. El escudo imperial es el primero que ostentaron los Reyes Católicos.

Escudo: Cuartelado: 1º y 4º, con las armas de Castilla y León. 2º y 3º, con las armas de Aragón y Sicilia. Aún no aparece el de Granada, adoptado en 1492.

Decoración: Águila con las alas abiertas.

ARESPAKOTXAGA

Leinuaren jatorria: Miota auzoa, Elorrio.

Armarria: urrezko hondoan, sustraietatik ateratako haritz berde bat, urrezko frutak eta erdian bi lis-lore urdin adaburu azpian; azpa gorria San Andresen urrezko zortzi gurutzerekin.

Apainketa: Aurrealdeko kaskoa, lumak lanbrekinekin eta bi lehoi tenante. Oinarrian, maskaroi. Armariaren atzealdean, Alcántarako Gurutzea ageri da.

Procedencia del linaje: barrio de Miota, Elorrio.

Escudo: en campo de oro, un roble raigado de sinople, frutado de oro y acostado de dos flores de lis azul debajo de la copa; bordura de gules con ocho aspas de oro.

Decoración: casco de frente, con plumaje, lambrequines y dos leones tenantes. Al pie, mascarón. Lleva acolada la Cruz de Alcántara.



ALDAPEBEITIA



Leinuaren jatorria: Aldape auzoa, Elorrio. Antonio Beitia Aldape (Aldapebeitia) Kapitainak eraiki zuen jauregia 1694an.

Armarria: Urezko hondoan, zuhaitz berde bat, hatz-puntetan jarritako bi otso beltzek eutsia, eta bi lis-lore urdin adaburuaren albo bakoitzean.

Apainketa: Kaskoa, kasketa irekita eta giza buru bat agerian, lanbrekinak eta, tenante gisa, bi emakume biluzik.

Procedencia del linaje: barrio de Aldape, Elorrio. El Capitán Antonio de Beitia de Aldape (Aldapebeitia) construyó este palacio en 1694.

Escudo: en campo de oro, un árbol de sinople soportado por dos lobos de sable empinados, y acompañado de dos flores de lis azul en cada flanco de la copa.

Decoración: muestra casco con celada abierta, con cabeza humana asomando, lambrequines, y por tenantes dos desnudos femeninos.

ESTEIBAR ARAUNA

Leinu bien batasuna 1575ean gertatu zen ziurrenik. Bien armariak, eraikinaren aurrealdean daudenak, XVIII. mendearen hasierakoak dira, egungo jauregia eraiki zenekoak.

- **ESTEIBAR:**

Leinuaren jatorria: Gazeta auzoa, Elorrio.

Armarría: Laukotua: 1.a, zuhaitz bat, eta basurde bat ebortzaren ezkerretik eskuinera igarotzen. 2.a, gurutze latindarra, ezkerreko besoa lokarri-eran eta goikoak muturra okertuta dituela. 3.a, esku bat daga bati eusten. 4.a, bost almenako dorre bat beste hiru almena dituen dorrearekin. Apainketa: Kaskoa eta lumak. Oinarrian, "ESTEYBAR" idazkuna.

- **ARAUNA:**

Leinuaren jatorria: Arauna auzoa, Elorrio.

Armarría: Ebakia: 1.a, hondo urdinean, zortzi puntako bost izar, urrezkoak, San Andresen gurutze eran jarriak. 2.a, urrezko hondoan, lau zerrenda urdin. Apainketa: Kaskoa eta lumak. Oinarrian, "ARAUNA" idazkuna.

La unión de ambos linajes tuvo lugar, probablemente, en 1575. Los escudos de ambos, situados en la fachada principal del edificio, datan de principios del siglo XVIII, cuando se levantó el actual palacio.

- **ESTEIBAR:**

Procedencia del linaje: barrio de Gazeta, Elorrio.

Escudo: Cuartelado: 1º, árbol y jabalí pasante al pie del tronco, de izquierda a derecha. 2º, cruz latina con el brazo izquierdo en lazo y el superior con la punta doblada. 3º, mano empuñando una daga. 4º, torre con cinco almenas y con torreón de otras tres almenas.

Decoración: casco y plumaje. Al pie la inscripción "ESTEYVAR".

- **ARAUNA:**

Procedencia del linaje: barrio de Arauna, Elorrio.

Escudo: Cortado: 1º, en campo de azul, cinco estrellas de ocho rayos, de oro, puestas en aspa. 2º, en campo de oro, cuatro fajas de azul.

Decoración: casco y plumaje. Al pie la inscripción "ARAUNA".



Esteibar



Arauna

LARIZ



Leinuaren jatorria: Larizko dorretxea, Berrizen, Bizkaia, Gizaburuagako Bengolearrekin uztartua.

Armarria: Erdibitua: 1.a, zuhaitz frutaduna eta koroa batekin adaburuan, eta adarretatik zintzilik kate batzuk su gaineko eltze bati eusten, eta lau otso, bina eltzearen albo bakoitzean, enbor aldera hatz-puntetan jarriak eta goikoek burua buelta emanda. Azpa katebegizko kate batekin (Lariz). 2.a, lehoi erdizutitua eta, buruan, zortzi puntako izarra (Bengolea).

Apainketa: Lumadun kaskoa, kasketa irekita duela. Kasko gainean filakteria bat eta albo bakoitzean aingeru guardako bana.

Procedencia del linaje: Casa-torre de Lariz, en Berriz, Bizkaia, enlazado con los Bengolea de Gizaburuaga.

Escudo: Partido: 1º, árbol frutado y cargado en la copa con una corona, y pendiente de las ramas, unas cadenas de las que cuelga una caldera, sobre llamas de fuego, y cuatro lobos, dos a cada lado de la caldera, empinados al tronco y los superiores con la cabeza vuelta. Bordura con una cadena de eslabones (Lariz). 2º, un león semirampante, y, en jefe, una estrella de ocho puntas (Bengolea).

Decoración: casco con plumaje y celada abierta. Sobre el casco una filacteria y a cada lado un angelote. A los lados del escudo dos leones tenantes; al pie, un mascarón.

UNZETA URIGOITIA (CASAJARA)



1934an eraiki zuten José M^a Unzeta Berriozabalbeitiak, Jara Etxeko markesak, eta haren emazte Herminia Urigoitia Peláezek.

Armarria: Erdibitua: 1.a, haritza, enbor aurretik bi otso igarotzen ari direla (Unzeta). 2.a, arrano bat hegoak eta isatsa zabalik eta azpa horzduna (Urigoitia).

Erdian, gailenduta, Kordobako Fernandeztarren ezkutu txikia: Ebakia: 1.a, erdibitua: A) banda draganteen ahoan, goialdean erbi-txakur buru bat eta oinarrian dorre bat. B) era berean ebakia, San Andresen gurutzean zortzi puntako bost izarrekin gainean, eta hiru zerrenda azpian. 2.a, errege mairua uztaiarekin lepoan eta errege-makilarekin eskuan.

Apainketa: Aurrealdeko kaskoa, kasketa irekita duela eta giza aurpegi bat agerian; kasko gainean, lumak. Multzoaren oinarrian, maskaroia. Bi lehoi tenante gisa, eta kartela gainean markes-koroa. Armariaren atzealdean, Santiagoren Gurutzea dauka.

Construido en 1934 por José María de Unzeta Berriozabalbeitia, marqués de Casa Jara, y por su esposa Herminia Urigoitia Peláez.

Escudo: Partido: 1º, roble con dos lobos pasantes ante el tronco (Unzeta). 2º, águila empleyada y bordura dentellada (Urigoitia).

Sobre el todo, escusón de los Fernández de Córdoba: Cortado: 1º, partido, A) banda en boca de dragantes, con cabeza de lebrél en lo alto y torre al pie. B) a su vez cortado, con cinco estrellas de ocho rayos en aspa encima, y tres fajas debajo. 2º, rey moro con argolla al cuello y con cetro.

Decoración: casco de frente, con celada abierta en la que asoma rostro humano; sobre el casco plumaje. Al pie del conjunto, mascarón. Por tenantes dos leones, y sobre la cartela corona de marqués. Lleva acolada la Cruz de Santiago.

ZEARSOLO

Leinuaren jatorria: Miota auzoa, Elorrio.

Armarria: Laukotua: 1.a, zuhaitz bat eta atzean almenadun dorre bat (Zearsolo). 2.a, basurde bat (Mendrakabeitia). 3.a, zerrenda bat Calatravaren Gurutzearekin gainaldean eta hegoak eta isatsa irekita dituen arrano bat behealdean (Berriozabal). 4.a, zisne bat lau lis-lorerekin, bina goian eta behean (Etxebarria).

Apainketa: Kaskoa eskuinaldean, kasketa irekita duela eta giza buru bat ageri zaiola, lumak eta lanbrekinezko gainjantzia. Bi lehoi tenante eta maskaroia multzoaren oinarrian.

Procedencia del linaje: barrio de Miota, Elorrio.

Escudo: Cuartelado: 1º, árbol tras el cual aparece una torre almenada (Zearsolo). 2º, un jabalí andante y terrasado (Mendrakabeitia). 3º, banda con Cruz de Calatrava en lo alto y águila exployada en lo bajo (Berriozabal). 4º, un cisne con cuatro flores de lis, dos encima y dos abajo (Etxebarria).

Decoración: Casco a la derecha, con celada abierta en la que asoma cabeza humana, plumaje y manto de lambrequines. Dos leones por tenantes y mascarón al pie del conjunto.



ARRIOLA



Leinuaren jatorria: Arriola etxea Deban (Gipuzkoa), Elorrioren finkatua.

Armarria: Debako etxeko berbera da: hondo gorrian, zilarrezko hiru panel eta metal bereko beso armatu bat, ezkerreko albotik datorrela ezpata biluzi batekin eskuan, zilarrezkoa halaber. Urre eta urdin koloreko laukiz beteriko azpa bi ordenatan.

Apainketa: Kaskoa, lumak, lanbrekinak eta maskaroia oinarrian, armarriaren atzealdeko Alcantararen Gurutzearen behealdeak erdi-estailita.

Procedencia del linaje: Casa de Arriola en Deba (Gipuzkoa), asentada en Elorrio.

Escudo: es el mismo que el de la casa de Deba: en campo de gules, tres panelas de plata y un brazo armado del mismo metal, moviente del flanco siniestro y empuñando una espada desnuda, también de plata. Bordura jaquelada de oro y azur en dos órdenes.

Decoración: casco, plumaje, lambrequines y mascarón al pie, medio tapado por el extremo inferior de la Cruz de Alcántara acolada.

URKIZU ITURBE



Iturbe leinuaren jatorria: Lekerika auzoa, Elorrio. Armarría: Ebakia: 1.a, barra edo kontrabanda draganteen ahoan (Urkizu). 2.a, hiru zerranda (Iturbe).

Apainketa: Kaskoa eskuinaldean lumekin eta lanbrekin, eta maskaroia oinarrian. Armariaren atzealdean, Alcantararen Gurutzea.

Procedencia del linaje Iturbe: barrio de Lekerika, Elorrio.

Escudo: Cortado: 1º, barra o contrabanda en boca de dragantes (Urkizu). 2º, tres fajas (Iturbe).

Decoración: casco a la derecha con plumaje y lambrequines, y mascarón al pie. Tiene acolada la Cruz de Alcántara.

IBARGUEN URKIZU

Ibarguen leinuaren jatorria: Urkizuaran auzoa, Elorrio; Zeanurin sustraiak ditu.

Armarría: Laukotua: 1.a eta 4.a, laurden osoa betetzen duen lis-lore erako gurutzea (Ibarguen). 2.a eta 3.a, banda draganteen ahoan (Urkizu); eta gailenduak guztiaren gainean, ilargi-erdi batekin (Gamarra).

Apainketa: Lanbrekinak eta hiru gandar. Hiru kaskoetako bakoitzak leinuaren ezaugarri bat darama gainean: eskuinekoak lis-lore erako gurutzea, erdikoak ilargi-erdia eta ezkerrekoak dragoia.

Procedencia del linaje Ibarguen: barrio de Urkizuaran, Elorrio; con orígenes en Zeanuri.

Escudo: Cuartelado: 1º y 4º, cruz flordelisada que llena todo el cuartel (Ibarguen). 2º y 3º, banda en boca de dragantes (Urkizu); y brochante sobre el todo, con una media luna (Gamarra).

Decoración: lambrequines y tres cimera. Cada uno de los tres cascos luce encima el emblema del linaje: el de la derecha la cruz flordelisada, el del centro la media luna y el de la izquierda el dragón.



ALTZERREKA MENDIOLA

Leinuaren jatorria: Miota auzoa, Elorrio.

Armarria: Laukotua: 1.a, zuhaitz bat, eta enborren oinarrian bi otso, albo bakoitzean bana elkari bizkarra emanda (Altzerreka). 2.a, zuhaitz bat, eta enborren oinarrian, aurean, basurdea, eta zortzi gurutzeko orla (Mendiola). 3.a, zuhaitz bat koroa batekin adaburuan eta eltzea enbor erdian, eta lau otso, bina enborren albo bakoitzean; kate bat osatzen duten katebegizko orla (Zaldibar). 4.a, ebakia: A) zortzi puntako hiru izarreko banda goiko angeluan, izarrok bandarekiko paraleloak dira; B) hiru panela, bata goian eta beste biak behean (Ibarra).



Apainketa: Kaskoa lumekin, eta gainean beso biluzi bat bandera daramala; maskaroi bat kasko azpian eta beste bat multzoaren oinarrian, lanbrekinezko gainjantziaren gainean.

Procedencia del linaje: barrio de Miota, Elorrio.

Escudo: Cuartelado: 1º, árbol y, al pie del tronco dos lobos, uno a cada lado dándose la espalda (Altzerreka). 2º, árbol con jabalí al pie delante del tronco y orla con ocho aspas (Mendiola). 3º, árbol con corona en la copa y caldero en medio del tronco y cuatro lobos, dos a cada lado del tronco; orla de eslabones que componen una cadena (Zaldibar). 4º, cortado: A) banda con tres estrellas de ocho puntas en ángulo superior, paralelas a la banda. B) tres panelas, una arriba y dos abajo (Ibarra).

Decoración: casco con plumaje, y sobre éste un brazo desnudo portando bandera; mascarón bajo el casco y otro al pie del conjunto sobre manto de lambrequines.



LEKERIKA

Leinuaren jatorria: Lekeriketa auzoa, Elorrio.

Armarria: Laukotua: 1.a, sustraietatik ateratako zuhaitz frutaduna, eta enbor aldera hatz-puntetan jarritako otso armatua (Lekerika). 2.a, uztai batetik zintzilikaturiko adarra (Otsa). 3.a, almenadun dorrea gainean beste almenadun dore bat duela (Lekerikaonandia). 4.a, sustraietatik ateratako zuhaitz frutaduna, eta enbor aurretik otso bat igarotzen (Otsabarrena). San Andresen zortzi gurutzeko azpa orokorra darama, Lekerikarena dena. Apainketa: Kaskoa, lumak eta lanbrekinak, tenante gisa emakume eta gizon bana biluzik, gorputz erdia uhandrearena dutela, eta oinarrian aingeru-burua hegoak zabalik eta arrosa bi.

Procedencia del linaje: barrio de Lekeriketa, Elorrio.

Escudo: Cuartelado: 1º, árbol raigado y frutado, con lobo armado empujante al tronco (Lekerika). 2º, cuerno colgado de una argolla (Otsa). 3º, torre almenada con torreón almenado encima (Lekerikaonandia). 4º, árbol frutado y raigado, con lobo pasante al tronco (Otsabarrena). Lleva bordura general con ocho aspas que es de Lekerika.

Decoración: casco, plumaje y lambrequines, por tenantes mujer y hombre desnudos con medio cuerpo de sirena y, al pie, cabeza de ángel con alas abiertas y dos rosetones.

OTSA (OSSA/OSA)



Leinuaren jatorria: Aldape auzoa, Elorrio.

Armarria: Laukotua: 1.a eta 4.a, adar bat kate batzuetatik zintzilik, kateak uztaibatetik eskegita daudela (Otsa). 2.a eta 3.a, zuhaitz frutaduna eta zelai batean otso bat enbor aurretik igarotzen (Lekerika).

Apainketa: Kaskoa ezkeraldera begira, lumekin eta lanbrekin. Bi lehoi tenante gisa. Oinarrian, maskaroia.

Otsabarrenako armariak, Aldape auzoan, ondoko idazkuna dauka behealdean: *“Para voz y centinela de Vizcaya, ilustre cosa, se fundó la casa de Ossa para q(ue) simpresten (siempre estén en) vela”*.

Procedencia del linaje: barrio de Aldape, Elorrio.

Escudo: Cuartelado: 1º y 4º, un cuerno pendiente de unas cadenas, colgadas de una argolla (Otsa). 2º y 3º, árbol frutado y terrasado con un lobo pasante al tronco (Lekerika).

Decoración: casco mirando a la izquierda (bastardo), con plumaje, y lambrequines. Dos leones como tenantes. Al pie mascarón.

El escudo de Otsabarrena, en el barrio de Aldape, lleva al pie una inscripción que dice así: *“Para voz y centinela de Vizcaya, ilustre cosa, se fundó la casa de Ossa para q(ue) simpresten (siempre estén en) vela”*.



Armarriaren entseina
Otsabarrena baserrian (Aldape).
Divisa del escudo en el caserío
Otsabarrena (Aldape).

URKIZU. TOLA

Elorrioko beste etxe askotakoak bezala, armari hau Urkizu leinuari dagokio.

Armarria: Ebakia: 1.a, lis-lore erako gurutzea. 2.a, banda draganteen ahoan, goialdean beso armatu batek lagunduta, eskuan ezpata gora begira eta azpian basurde ibiltari bat.

Apainketa: Kaskoa lumekin aurrera begira, kasketa irekita eta giza aurpegi bat agerian. Lanbrekinak eta, tenante gisa, bi haur biluzik.

Como el de otras muchas casas de Elorrio, este escudo corresponde al linaje Urkizu.

Escudo: Partido: 1º, cruz flordelisada. 2º, banda en boca de dragantes acompañada, en lo alto, de un brazo armado con espada punta arriba en la mano y debajo un jabalí andante.

Decoración: casco con plumaje que mira al frente, con celada abierta y rostro humano. Lambrequines y como tenantes dos niños desnudos.



Urkizuaran auzoko URKIZUTARRAK

Los URKIZU de Urkizuaran



*Erortzean dagoen Urkizu Elexalde baserriko armarría.
Escudo del caserío en ruinas de Urkizu Elexalde.*

Hainbat baserri zeuden Urkizuaran auzoan eta, Elorrioko beste etxe batzuek bezala, leinu honen armari heraldikoak agertzen dituzte.

1988an erretako Erkizu Elexalde baserriaren hondarrek Urkizuren armarría agertzen dute: banda bat draganteen ahoan. Apaingarri kaparetasun-kasko bat lumekin eta lanbrekin; kasko azpian, filakteria bat. Armarría mentsula baten gainean dago.

Urkizu San Bizente baserriak ere badu kontrabanda edo barra draganteen ahoan, kaskoarekin, lumekin eta lanbrekin apainduta.

Desagerturiko Urkizu San Antongoa baserrian ere leinu honen armarría zegoen.

Existen varios caseríos en el barrio de Urkizuaran que, al igual que otras casas de Elorrio, ostentan los escudos heráldicos de ese linaje.

Las ruinas del caserío Urkizu Elexalde, incendiado en 1988, muestran el escudo de Urkizu: una banda en boca de dragantes. Como adornos, un casco de hidalguía con plumaje y lambrequines; bajo el casco, una filacteria. El escudo descansa sobre una repisa.

También el caserío Urkizu San Bizentekoa ostenta contrabanda o barra en boca de dragantes, adornado con casco plumaje y lambrequines.

El desaparecido caserío Urkizu San Antongoa ostentaba el escudo de este linaje.

Heraldikari buruzko ohar laburrak

Breves apuntes de heráldica

LUMAK-PLUMAS

KASKETA-CELADA

LANBREKINAK
LAMBREQUINES



Armariaren atalak - Partes del escudo

ZATIKETAK - PARTICIONES



Erdibitua
Partido



Ebakia
Cortado



Hautsia
Tronchado



Zatikatua
Tajado

BIRZATIKETAK - REPARTICIONES



Gurutze-eran laukotua
Cuartelado en cruz



Ikoroski-eran laukotua
Cuartelado en aspa

KOLOREAK - COLORES



Gorria
Gules



Urdina
Azur



Urrea
Oro



Zilarra
Plata



Purpura
Púrpura



Beltza
Sable



Berdea
Sinople

IRUDIKAPEN GRAFIKOA - REPRESENTACIÓN GRÁFICA



Gorria
Gules



Urdina
Azur



Urrea
Oro



Zilarra
Plata



Purpura
Púrpura



Beltza
Sable



Berdea
Sinople

Zenbait berba heraldiko

Adarra: haize-instrumentua; heraldikan, soinuaren bidez deitzeko erabilitako adarra.

Azpa: Armariaren hondoa ertzetik inguratzen duen pieza.

Kasketa: aurpegia estaltzeko edo erakusteko balio duen kaskoaren atala.

Laurdena: Armari bat lau zatitan banatzen da, horietako bakoitzari laurdena deritzo.

Dragante: Dragoi baten buruaren irudia, zerbaiti haginka egiten edo zerbait irensten ari dela ahoa irekita duena.

Expoyado(a): Arranoari esaten zaio, hegoak eta isatsa zabalik dituenen.

Filakteria: Armaria apaintzen duen zinta, ikurritz bat izaten du inskribatuta.

Xakeztatua: Laukien errepikapena, metala eta kolorea tartekatuta.

Buru: Armariaren burualdea edo goialdea.

Lanbrekina: Akanto-hosto erako apaingarria, kaskoaren goialdetik jaitsi eta armaria apaintzen duena.

Laratz(k): Eltzea su gainean eskegitzeko balio duen burdinazko katea.

Tenantea: Armariari eusten dion irudi bakoitza.

Lehoi jaioberria: Goialdea besterik ez agerian duen lehoia, eguzkia zerumugan sortzen denean bezala.

Algunos términos heráldicos

Acolado(a): figuras similares cuando están puestas una junto a otra.

Bocina: Instrumento de viento, en heráldica cuerno utilizado para llamar mediante su sonido.

Bordura: Pieza que rodea el campo del escudo por su borde.

Celada: Pieza del casco que sirve para cubrir o descubrir la zona de la cara.

Cuartel: Cada una de las cuatro partes en las que se divide un escudo.

Dragante: Figura representando una cabeza de dragón con la boca abierta, mordiendo o tragando algo.

Expoyado(a): dicese del águila cuando lleva las alas abiertas.

Filacteria: Cinta en la que se inscribe un lema y que adorna el escudo.

Jaquelado: Cuadro o casilla resultante de las divisiones de un escudo cortado y partido al menos dos veces.

Jefe: Cabecera o parte alta de un escudo de armas.

Lambrequín: Adorno en forma de hojas de acanto que baja de lo alto del casco y rodea el escudo.

Llar(es): Cadena de hierro que sirve para colgar una caldera sobre el fuego.

Raigado: Árbol con raíces a la vista.

Tenante: Cada una de las figuras que sostienen el escudo.

Terrasado(a): figura o pieza de un escudo que se asienta o reposa en una terraza o base.



Elorrioko udala

TURISMO BULEGOA
OFICINA DE TURISMO

Berrio Otxoa, 1

Tel.: 946 820 164 - 688 776 270

turismoa@elorrio.eus

www.elorrioturismo.eus